

**EUDEL-EUSKALTZAINDIA:**  
***HITZARMEN BERRIA***

*Bilbo, 2004-II-27*

## EUDEL-EUSKALTZAINDIA

*Bilbo, 2004-II-27*

*Karmelo Sáinz de la Maza,  
EUDEL-eko burua*

Egun on guztioi:

Eskerrik asko Euskaltzainburu jauna, zure ongi etorri beroagatik. Era berean, eskerrik asko, baita ere, urteetan zehar euskararen alde zuk, gaur hemen gurekin dauden euskaltzain guztioiok eta beste askok eta askok egin duzuen lan garrantzitsu eta ezinbestekoagatik.

Gaur, Euskadiko Udalen Elkarateak (EUDEL) euskararekin duen konpromisoa agertu nahiko nizueke. Udalek euskararen alde dihardute lanean eta nahiz eta oraindik, bai administrazio mailan baita gizarte mailan ere, euskararen normalkuntzarako aurrerapauso handiak eman behar diren, badugu lanean jarraitzeko nahikoa indarririk. Hala ere, azpimarratu nahiko nuke, gure helburuak lortzeko, behar-beharrezkoa dela instituzioen arteko elkarlana, eta horren adibide dugu EUDELek eta Euskaltzaindiak gaur sinatuko duten *hitzarmena*.

Hainbat urte daramagu elkarlanean, baina etengabe jarraitu behar dugu euskararen erabilera eta normalkuntza lortzeko; hori dela eta, orain dela hiru urte adostutako hitzarmenaren eraginkortasuna ikusita eta udalek zerbitzu honen jarraitzea beharrezkoa zela ikusita, egokitzen jo genuen hitzarmen berri bat sinatzea. EUDELen pozik gaude orain arte egindako lan guztiarekin eta seguru gaude etorkizunean egingo denarekin ere pozik izango garela.

\* \* \*

Quisiera agradecer en primer lugar al Sr. Haritschelhar, presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, la bienvenida que nos ha dado en su casa a los alcaldes vascos y agradecer asimismo, y en primer lugar, la inmensa e importantísima labor que tanto él como los Euskaltzainas que hoy tenemos el placer que nos acompañen en este encuentro con ustedes los medios de comunicación, y otros muchos hombres y mujeres han realizado a favor del euskera. Sin duda, sin el esfuerzo y el trabajo de todos ellos no hubiéramos conseguido que el euskera sobreviviera de una manera activa y moderna al paso de los siglos.

En este contexto quisiera, una vez más, reafirmar públicamente el compromiso de la Asociación de Municipios Vascos para con el euskera. Los Ayuntamientos estamos haciendo un gran esfuerzo por conseguir esa ansiada normalización de nuestra lengua no sólo en el ámbito administrativo municipal sino en el día a día de nuestros ciudadanos y ciudadanas. Son muchas las iniciativas que en los últimos años estamos impulsando, pero sin duda necesitamos de una coordinación y de un trabajo en común que nos permita conseguir mayores logros. Un buen ejemplo de esa labor interinstitucional es el *convenio* de asistencia técnica a los entes locales en materia de denominaciones toponímicas que acabamos de firmar EUDEL y Euskaltzaindia.

Ya en el año 2001 decidimos dar el paso de colaborar en esta materia y vista la eficacia que tuvo, y ha tenido en los últimos años ese *convenio*, y detectada la necesidad de que los Ayuntamientos sigan contando con este servicio de asistencia técnica que nos viene ofreciendo Euskaltzaindia, en EUDEL tuvimos claro que había que dar continuidad a esta relación y a este servicio que nos permite, por una parte, aunar criterios a la hora de denominar en euskera los distintos espacios que componen nuestro municipio y por otro, mantener vivo el euskera allá donde nuestros pueblos y ciudades crecen y florecen.

No quisiera alargarme más; agradecer de nuevo a Euskaltzaindia su trabajo a favor del euskera y mostrar la satisfacción de la Asociación de Municipios Vascos por la importante labor que estamos realizando los Ayuntamientos en colaboración de Euskaltzaindia.

Eskerrik asko.

## EUDEL-EUSKALTZAINDIA

### *Hitzarmena*

*Bilbo egoitza, 2004-II-27*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Ene lehenbiziko hitzak izanen dira zuen agurtzeko. Badakizue hemen sartzen zaretelarik zuen etxean zaudetela. Ongi etorri berezi bat egiten dizuet elgarrekin sinatuko dugun *hitzarmenak* bere garrantzia baitu.

Karmelo Sainz de la Maza EUDEL-eko burua.

Miren Dobaran anderea, Berangoko alkate-anderea.

Hemen diren euskaltzainkide guztioi.

Kazetarioi.

Agur

Orain bertan izenpetu dugun *hitzarmena* garrantzi handikoa da ene ustez. Ez da lehena. Aspaldi honetan ari gara elgarrekin lanean, bakoitzak berea emanez. Hain zuzen, nahi nuke azpimarratu Onomastika batzordekideen emaitza. Badakit zehazki egiten dituztela ikerketak, txosten mamitsuak ekarriz Euskaltzaindiaren hileroko bilkurara, han baitira erabakiak hartzen eta gero kaleratzen. Alde batetik lantzen da Euskal Herriko toponimia –herri, ibai, mendi eta abar– baina ere ponte-izenak eta deiturak erakutsiz nola idatzi behar diren.

Bestalde, Exonimian sartzan direlarik lan baliosa egiten dute. Alabaina, atzerrietako erresumak, haien biztanleak nola behar diren idatzi proposatzen dute. Bada Exonimian lan ikaragarri bat pentsatuz hor ere behar direla aztertu hiri nagusien, hiri haundien, ibaien, mendien-izenak nola behar diren idatzi. Hori landuz batasunerako bidean jartzen du euskara, komunikabide guztiek –prentsa, irrati, telebista– baliatuko baitituzte Euskaltzaindiaren emaitzak.

*Hitzarmen* honetan argiki azaltzen da Euskaltzaindiak eskainitako zerbitzua nabaria izan denez eta udalek zerbitzu honekin jarraitzea beharrezkoa dela, *hitzarmen* berri baten adostea erabaki da, horretan segurtatzen direla elgarrekilako harremanak. Hala izan bedi hemendik goiti eta urte askotarako, zerbitzari onak eta leialak izan gaiten zuek eta gu.

Eskerrik asko.



**EUSKALTZAINDIA**  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

**EUDELEN ETA  
EUSKALTZAINDIAREN  
ARTEKO HITZARMENA, TOKI  
ERAKUNDEEI LAGUNTZA  
TEKNIKOA EMATEKO IZEN  
TOPONIMIKOEN ARLOAN**

Bilbon, 2004ko otsailaren 27an

Bildu dira

Batetik, Karmelo SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna, Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) elkar-teburua, erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz.

Bestetik, Jean HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, Euskaltzainburua, erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz.

Adierazi dute

2001eko uztailaren 11an EUDELek eta Euskaltzaindiak hitzarmen bat sinatu zutela, Toki Erakundeek izen



**CONVENIO ENTRE EUDEL Y  
EUSKALTZAINDIA PARA LA  
PRESTACION DE UN  
SERVICIO DE ASISTENCIA  
TECNICA A LOS ENTES  
LOCALES EN MATERIA DE  
DENOMINACIONES  
TOPONIMICAS**

En Bilbao, a 27 de febrero de 2004

Reunidos

De una parte, D. Karmelo SÁINZ DE LA MAZA ARROLA, Presidente de EUDEL/ Asociación de Municipios Vascos, en su nombre y representación.

De la otra parte, el Ilmo. Sr. D. Jean HARITSCHELHAR DUHALDE, Presidente de EUSKALTZAINDIA, en nombre y representación de ésta.

Manifiestan

Que el 11 de julio de 2001, EUDEL y Euskaltzaindia firmaron un Convenio para la prestación de un ser-

toponimikoen inguruan aholkularitza teknikoari buruzko zerbitzua ziurtatzeko.

Sinatutako hitzarmenaren eraginkortasuna eta Euskaltzaindiak eskainitako zerbitzua nabaria izan denez eta udalek zerbitzu honekin jarraitzea beharrezkoa dela ikusirik, orain arteko zerbitzuak ziurtatzeko, egoki ikusten da hitzarmen berri bat adostea. Hitzarmen berri honek mugagabeko iraunaldia izango du, beti ere, ondorengo klausulen arabera:

#### Klausulak

##### 1. Xedea:

a) Toki Erakundeek laguntza tekniko ematea industrialde, auzo berri, etxebizitza-poligono, naturgune, parke, atsedeneku, zerbitzugune, katalogatutako herri baso eta beste-lakoen izen toponimikoei buruz.

Helburu hori betetzeko, beharrezkoa izango da gainerako Instituzioekin, SPRI eta abarrekin elkarlanean jardutea, beti ere, aurretiaz, egun dauden izen toponimikoen Inbentarioa egiteko formatu informatikoan. Hitzarmen honen ezarpenaren ondorioz bihar-etzi izan daitezkeen inbentarioekin osatu beharko da aipatutako inbentarioa.

b) Era berean, Udalek eskatuta, etengabe emango da plaza, paseale-

vicio de asistencia técnica a los entes locales en materia de denominaciones toponímicas.

Que vista la eficacia del convenio firmado y del servicio prestado por Euskaltzaindia, y detectada la necesidad de que los ayuntamientos cuenten con este servicio, se estima conveniente la redacción de nuevo convenio con mantenimiento de los servicios prestados y con duración indeterminada en función del servicio prestado de acuerdo a las siguientes

#### Cláusulas

##### 1. Objeto:

a) Servicio de asistencia técnica a los Entes Locales sobre las denominaciones toponímicas de polígonos industriales, nuevos barrios, polígonos residenciales, espacios naturales, parques, zonas de descanso, zonas de servicio, montes municipales catalogados, etcétera.

Para la consecución de este objetivo, será preciso la colaboración con el resto de Instituciones, SPRI, etc. con el fin de elaborar un Inventario previo, en formato informático, de las denominaciones toponímicas existentes. Este inventario deberá ser complementado con las que en un futuro puedan existir como consecuencia de la aplicación de este Convenio.

b) Igualmente, se prestará el servicio de asesoramiento continuo sobre

ku, kale eta bestelakoen izen toponimikoei, hau da, hiri-toponimiari buruzko zerbitzua.

las denominaciones toponímicas de plazas, paseos, calles, etc. municipales, es decir toponimia urbana, que los Ayuntamientos soliciten.

## 2. Prozedura:

– Hitzarmen honen esparruan toki erakundeek egingo dituzten eskaerak modu egokian eta eraginkortasunez koordinatu eta bideratu ahal izateko, eskaerok EUDELea bidali beharko dira. EUDELeK, bestalde, bide egokiak ezarriko ditu eskaerak Euskaltzaindira bidali eta lortutako emaitzak biltzeko. Euskaltzaindiak EUDELeK agindutakoa bete duenean, eskaera jaso eta ahalik eta denborarik laburrenean jakinaraziko zaizkio emaitzak EUDELi, honek dagokion udalari igortzeko.

– Eginkizun hau betetzeko, eta ahal den neurrian datu-igorpena azkartzeko asmoz, unean-unean eskueran dauden tresna telematikoen aurreratuenak erabiltzen saiatuko dira sinatzailerak.

## 3. Finantzaketa:

Laguntza tekniko etengabearen zenbatekoa 2004. urterako 32.500 eurotakoa izango da. EUDELeK ordaindu baino lehen, Euskaltzaindiak justifikatu egin beharko ditu eginda-

## 2. Procedimiento:

– Con el fin de coordinar y encauzar de una manera lógica y eficaz las peticiones que en el ámbito de este Convenio se comprometen a formular los entes locales, las mismas deberán remitirse a EUDEL, quien a su vez establecerá los cauces pertinentes para reenviar las solicitudes a Euskaltzaindia y recabar los resultados obtenidos. Una vez cumplido por Euskaltzaindia la labor encomendada por el EUDEL, dicho resultado será oportunamente comunicado a EUDEL en el plazo más breve posible desde la fecha de la solicitud para que sea ésta la que traslade la resolución al Ayuntamiento.

– Para dar cumplimiento a este cometido, y con el fin de agilizar en la medida de lo posible la labor de transmisión de datos, se procurará por todas las partes intervinientes la utilización de las herramientas telemáticas más avanzadas que estén disponibles en cada momento.

## 3. Financiación:

El importe total de este servicio de asesoramiento continuo asciende a la cantidad para el año 2004 de 32.500 €, que EUDEL abonará a Euskaltzaindia previa justificación

ko jarduerak, bakoitzaren kostua xehetasunez azalduz. Kopuru hau urtero berrikusiko da, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreko urteko urtarrilaren batetik eta abenduaren 31ra bitartean sortutako K.P.I.ren arabera.

#### 4. Epea:

Hitzarmen honek 2004ko urtarrilaren batetik eta abenduaren 31ra bitarteko iraupena izango du. Hala ere, automatikoki luza daiteke beste urte batez, baldin eta sinatzaileek iraunaldia amaitu baino hiru hilabeteke epean salatzen ez badute.

#### 5. Baldintzak:

– Euskaltzaindiak zerbitzuaren arduradun bat izendatu behar du hitzarmena indarrean sartu baino lehen. Pertsona horrek Euskaltzaindiarekin izango du lan-harremana eta/edo hirugarrenetik hitzarmena izango du. Bera izango da aipatutako Instituzioaren, EUDEL-en eta Udalen arteko harremanen arduraduna.

– Lehen aipatutako epea bukatzean, lortutako emaitzen datu-base osoa eman beharko dio Euskaltzaindiak EUDELi. Datu-base hori egun HPSn dagoen datu-basean sartuko da eta osatu egingo du. Halaber, agindutako lanetako emaitzen arabe-

de las actuaciones realizadas con expresión del coste pormenorizado de cada una de ellas. Esta cantidad se revisará anualmente teniendo en cuenta el I.P.C. de la Comunidad Autónoma Vasca generado entre el uno de enero y el treinta y uno de diciembre del año inmediatamente anterior al del período de vigencia del convenio.

#### 4. Plazo:

Este convenio estará en vigor del uno de enero al 31 de diciembre de 2004 pudiendo prorrogarse tácitamente, por períodos anuales, salvo denuncia de las partes que deberá realizarse con un plazo de antelación mínimo de tres meses anteriores a la fecha de vencimiento.

#### 5. Condiciones:

– Euskaltzaindia deberá designar un responsable del servicio con anterioridad al inicio de la ejecución de este convenio. Dicha persona tendrá su relación laboral con Euskaltzaindia y / o con convenio con terceras personas, y será la encargada de mantener las relaciones que se generen entre dicha Institución, EUDEL y los Ayuntamientos.

– Al finalizar el plazo de ejecución más arriba indicado, Euskaltzaindia deberá entregar a EUDEL una Base de datos completa con los resultados obtenidos, la cual se insertará y complementará la Base de datos actualmente existente en HPS. Todo



ra, datuak aldizka ematea ere hitzartu ahal izango da.

Euskaltzaindia da lan honetatik sortutako datu-basearen egilea, eta berea da horren jabetza intelektual osoa. Datu-basearen banaketa Euskaltzaindiak eta EUDELEk, bakoitzak bere aldetik, egin ahal izango dute. Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, datu-basearen gainean duen jabetza intelektualaren eskubidea beste inori ez ematera konprometitzen da Euskaltzaindia.

– Hitzarmen honen esparruan egingo diren lanen nondik norakoei buruzko jarraipen eraginkorra egiteko asmoz, Batzorde bat eratuko da. Euskaltzaindiko 2 kidek, EUDELEko 2 kidek eta HPSko 2 kidek osatuko dute Batzordea, eta beraiek argituko dituzte hemen xedatutakoaren ezarpena dela-eta sor daitezkeen gorabeherak.

Jean HARITSCHELHAR  
DUHALDE Jauna  
Euskaltzainburua

ello sin perjuicio de las entregas periódicas de los datos que puedan acordarse en función del resultado de los trabajos encomendados.

Euskaltzaindia es autor y titular del derecho de propiedad intelectual en pleno dominio de la base de datos resultante de este trabajo, cuya difusión se podrá llevar a cabo tanto por Euskaltzaindia como por EUDEL. Euskaltzaindia se compromete a no transmitir derecho alguno de propiedad intelectual sobre la mencionada base de datos mientras esté en vigor el presente contrato.

– Con el fin de llevar a cabo un seguimiento eficaz sobre el curso de los trabajos a realizar en el marco de este convenio, se creará una Comisión integrada por 2 personas de Euskaltzaindia, 2 de EUDEL y 2 de HPS, quienes a su vez resolverán las posibles controversias que pudieran acontecer con motivo de la aplicación de lo aquí dispuesto.

Karmelo SAINZ DE LA MAZA  
ARROLA Jauna  
Euskadiko Udalen Elkartearen  
(EUDEL) Elkarteburua

## EUDEL-EUSKALTZAINDIA

### *Hitzarmen berria*

*Bilbo, 2004-II-27*

*Miren Dobaran,  
Berangoko alkate anderea*

Egun on guztioi:

EUDELeko Batzorde Eragilearen euskara arduraduna naizen aldetik, bai eta Berangoko alkatesa legez ere, nire poztasuna agertu nahiko nuke adostutako hitzarmenarengatik. Honen bitartez, Euskadiko udalei benetan baliagarria eta interesgarria den zerbitzua eskaintzen ari gara, eta orain arte udalek Euskaltzaindiko adituei egindako ehundaka kontsulta esaten ari naizenaren adibide esanguratsuak dira, gero Andres Iñigo euskaltzainak azalduko digun bezala.

Lehenengo eta behin, argitu nahiko nizueke hitzarmen berri honek iraualdi mugagabea izango duela, euskararen aurrerapauso hori eman behar genuela ikusi baikenuen. Orain arte, urtero berritu badugu ere, gaurtik aurrera hitzarmenak iraualdi mugagabea izango du, orain arte EUDELen eta Euskaltzaindiaren artean egindako elkarlanari jarraipen sendoa emateko.

Adostu berri dugun hitzarmen hau dela eta, tokiko erakundeei laguntza teknikoa emango zaie industrialde, auzo berri, etxebizitza-poligono, naturgune, parke, atsedenleku, zerbitzugune edota katalogatutako izen toponimikoei buruz. Era berean, udalek eskatuta, etengabe emango da plaza, pasealeku, kale eta bestelakoen izen toponimikoei, hau da, hiri-toponimiari buruzko zerbitzua. Zer lortzen ari gara honekin? Bada, alde batetik, euskara berpiztea gure herri eta hirietan, eta, beste alde batetik, denok irizpide berdinak erabiltzea euskara indartuz eta sendotuz.

*Eta zer egin behar dute Udalek zerbitzu honen bitartez euren galdera toponimikoei buruzko erantzunak lortzeko?*

Orain arte egin duten bezala, eta eskaerak modu egokian eta eraginkortasunez koordinatu eta bideratu ahal izateko, eskaerok udalek EUDELera bi-

dali beharko dituzte eta EUDEL Euskaltzaindiarekin harremanetan jarriko da. Helburuak bi izango dira:

1. Erantzun toponimikoa, jaso bezain laster, Udalari jakinarazi, zerbitzu zehatza, fidagarria eta azkarra eskainiz.

2. Erantzun hori bildu, beste batzuekin batera, EUDELen bilduma bat egiteko eta lan tresna berri bat sortzeko, udalei eskaintzeko asmoagaz.

Azkenik adierazi nahi dut, Euskaltzaindiak udalei emango dien eta EUDELek ordaindu beharko duen laguntza tekniko etengabearen zenbatekoa 32.500 eurokoa izango dela 2004. urtean.

## **EUDELen ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMEN BERRIA**

*Bilbon, 2004ko otsailaren 27an*

*Andres Iñigo,  
Onomastika batzordeko burua*

Gauza jakina da Euskaltzaindiaren eginbeharretako bat euskara lantzea, aztertzea eta arautzea dela, gure hizkuntza egungo gizartearen harreman guztietarako egoki izan dadin. Hori da, hain zuzen, Akademia bere batzordeen birtartez egiten ari den lana. Batzorde horietako bat onomastikaz arduratzen dena da, eta berari dagokio gure herriaren izana adierazten duten izenak ikertzea eta, ondorioz, irizpenak ematea edota proposamenak egitea. Hori da batzordearen berezko lana eta kompetentzia.

Toponimoen nonnalizazioa ordea, hots, izenak behar bezala agerraraztea –errepide eta kaleetako karteletan, mapetan..., baita administrazioaren agiri ofizialetan ere-, herri agintarien esku dago. Begi-bistakoa da, alde handia dagoela publikoan eta denen aurrean agertzen diren izenak nolana izan idaztetik ongi idaztera, eta ongi idazteak ematen diola gure hizkuntzari zor diogun errespetua, duintasuna eta izan behar duen prestigioa.

Azpimarratu beharrekoa da, udalerrietako toponimiaren kompetentzia osoa udalena dela eta beraiei dagokiela izendegiak finkatzea eta gizarteratzea. Gaurko ekitaldi honetan sinatu den hitzarmenak argi adierazten du EUDEL ongi jabetu dela aipatutakoak duen garrantziaz eta hori, Euskaltzainditik begiratu-ta, eskertzekoa da benetan.

Nire aurretik hitz: egin duten EUDELen ordezkariak eta euskaltzainbu-ruak azaldu dute bi erakundeen arteko harremanak baduela jadanik bere ibil-bidea. Izan ere, 2001az geroztik indarrean dago urtez urte adostutako elkarren arteko akordioa eta honi esker EUDELeK, Euskaltzaindiaren bitartez, udalei laguntza teknikoa eman die auzo berri, plaza, kale, pasealeku, etxebizitza, poligono, parke, atsedenleku, zerbitzugune, mendi eta bestelako izenak finkatu eta adostuz. Mikel Gorrotxategik, onomastika batzordeko idazkariak, izan du orain arte eta izanen du hemendik aitzina ere bi erakundeen arteko harreman-aren ardura. Hona hemen, adibide gisa, Onomastika batzordearen onespene-kin 2003an Euskadiko Udalen Elkarteari emandako zerbitzu aipagarrienak:

— Kontzeju izenak: *Albeiz, Añua, Bergantzu, Ehari, Garai, Gebara, Gopegi, Gorrebustu, Markina, Miñao, Murgia, Narbaxa, Okina, Soxo, Untzaga-Apregingdana* eta *Zuhatza*.

— Kale izendegiak: *Basauri, Donemiliaga, Elorrio, Gasteiz, Getxo, Lantziego, Soraluze, Tolosa* eta *Usurbil*. Aiaran eta Okondon udalarentzat proposamenak egiteaz gain, kale izendegiak herritarren artean banatzeko ere prestatu dira.

— Toponimia txikia: Erandioko mapa egiteko eskaera onartu da, eta Dima, Eibar, Getxo eta Tolosako toponimiaren azterketarako aholkularitza eman ondoren, gainbegiratze lana ere burutu da. Bermeo, Zaldibar eta Zumaiako toponimia da une honetan esku arteko lana.

— Trebiñuko 63 herri izen finkatu ondoren, konderriko bi udalen babesaz eta inizatibaz izendegi horren ikerketa eta azalpenak biltzen dituen argitaratze lana prestatu da.

Gaur sinatu den *hitzarmen* berri hau orain arte izandakoen ondorioa da, testuan bertan espresuki adierazirik uzten den bezala:

«Sinatutako hitzannenaren eraginkortasuna eta Euskaltzaindiak eskainitako zerbitzua nabaria izan denez, eta udalek zerbitzu honekin jarraitzea beharrezkoa dela ikusirik, orain arteko zerbitzuak ziurtatzeko, egoki ikusten da *hitzarmen* berri bat adostea. *Hitzarmen* berri honek mugagabeko iraunaldia izango du».

Aipagarria da, beraz, bi erakundeon arteko harreman eta elkarlanari ematen dion egonkortasuna eta, aldi berean, adierazgarria eta txalogarria, EUDE-Lek, aitzina begira, euskararen ofizialtasunaren eta nonnalizazioaren alde egin duen apustua.

Urte askotarako izan dadila.

Zorionak eta eskerrik asko.